Aurten **Sartagudako Ikastolako 25. urteurrena** ospatuko dugu. Horren harira hainbat guraso, ikasle, ikasle ohi eta Euskal Herriko hegoaldeko txoko honetako euskararen egoerarekin arduratuta dagoen jendea oro har, ikastola honen egitasmoa martxan jarri zutenei omenaldia egitea erabaki dugu. Haien ahalegin, tinkotasun eta lanari esker horren garrantzitsu eta beharrezko zaigun egitasmoa ongibidean jartzeagatik esker ona adierazi nahi diegu.

Baina, gaur egun gure eskualdean hezkuntza euskaraz jasotzeko dugun aukera bakarra, Ibaialde Ikastola, kinka larrian da. Ikastolaren egungo egoera ekonomiko latzak horren erranguratsua zaigun ospakizuna birplanteatzera behartu gaitu.

Gauzak horrela omenaldiaren xedea aldatu egin da. Hasierako asmoa lehen andereño, presidente eta aurreneko bost ikasleei Agate Deuna egunean omenaldi xumea egitea bazen ere, orain bertze **helburu** batzuk gehitu zaizkio egoerak behartuta: alde batetik **dirua bildu Ibaialde Ikastolak aurrera egin dezan** eta bertzetik seme-alabentzako euskarazko hezkuntza integrala aukeratzen duten gurasoek pairatzen **duten hizkuntz-apartheida salatu**gura dugu. Horren erantzule nagusi dugu Nafarroako Gobernua, honek bere interesetarako baliatzen du Euskararen Legea Nafarroako jendartearen zati handi bat erabat baztertuz.

Ekimenean omenaldiaz gain, kontzertuak, herri kirol erakustaldiak, bertsoak, jotak, dantzak, kalejirak… izanen dira, otsailaren 5ean eta Sartagudako hainbat gunetan.

Hori dela eta, egun hau antolatzeko ardura hartu dugunok, artista, musika eta dantza talde eta laguntzeko prest dagoen euskaltzale orori deia luzatzen diogu denon artean jardunaldi hau burutu ahal izateko. Ekimena Ibaialde Ikastolaren eta oro har euskararen aldeko dinamika zabalago baten aurreneko urratsa izatea nahi dugu.

Honekin batera eskertzekoa litzateke mezu hau interesa izan ahal duten zure kontaktuen artean zabaltzea.

Este año y como celebración del **25 aniversario de la Ikastola de Sartaguda**, diferentes padres y madres de alumn@s, exalumn@s, así como personas sensibilizadas con la situación del euskera en este rincón del sur de Euskal Herria, decidimos que era el momento adecuado para rendir un merecido homenaje a aquellas personas que con su esfuerzo, tesón y trabajo consiguieron poner en marcha un proyecto tan importante y necesario.

Sin embargo, la realidad se impone y, a la par de esta alegría por una celebración tan significativa, **la situación económica que actualmente atraviesa Ibaialde Ikastola y que hace peligrar el futuro de la única alternativa para la educación en euskera de la zona,** obligó a replantear el acto.

Así, lo que en un principio iba a ser un pequeño homenaje que, coincidiendo con el día de Santa Agueda, se iba a realizar a la primera andereño, al primer presidente y a l@s cinco primer@s alumn@s de la ikastola, se ha convertido en un **acto con el que, además de recaudar fondos para ayudar a Ibaialde Ikastola a salir de la situación actual, buscamos también denunciar el apartheid lingüístico padecido por aquell@s padres y madres que optan por una educación íntegramente en euskera para sus hij@s y la discriminación que estos padecen por parte de un gobierno de navarra** que, pertrechado tras la Ley del Vascuence, ignora por completo a una parte importante de la sociedad navarra.

**La idea de la que partimos es organizar, además del citado homenaje, conciertos, exhibición de herri kirolak, bertsos, jotas, dantzas, kalejiras... durante toda la jornada del día 5 de febrero y en diferentes áreas en Sartaguda.**

Por eso, las personas que hemos tomado la iniciativa en la organización de dicha jornada, hacemos un **llamamiento a todos aquellos grupos musicales, grupos de danzas, artistas y a toda aquellas personas sensibilizadas e interesadas en colaborar** y aportar su granito de arena para que esta jornada tenga lugar y se convierta en el primer paso de una dinámica más amplia en defensa de Ibaialde Ikastola y del euskera en este rincón del sur de Euskal Herria.

Igualmente agradeceríamos que hagas llegar este mail a aquellos contactos que pienses que puedan estar interesados en colaborar.